

KOSTUEN EGITURA

Gure enpresan oso argi daukagu kostuak definitzearen garrantziaz. Lehenik eta behin, kostu finkoak adieraziko ditugu:

- LOKALA: Ekoizpenerako, familiak utzitako lokal bat daukagu, beraz ez dugu lokalean kostu handirik izango, hala ere, badakigu denda fisikoak zabaltzen hasten garenean alokairuak ordaintzen hasten joan behar izango garela.
- Josteko makinak: Bi edo hiru izango ditugu, 250€ unitate bakoitzeko. Beraz, 750€ inguru inbertituko ditugu makinetan. Aipatu genuenez, eskudirua daukagu hauek erosteko. Beraz, 750€ horiek segida batean ordainduko ditugu.
- Webgunearen domeinua: Interneteko gune baten helbidea erraztasunez gogoratzeko izena izango litzateke, adibidez: docs.google.com. Domeinuaren arabera, doanik edota ordaintzekoa izan daitezke. Kasu honetan “.com” domeinua erabili nahi dugu. Honek, 14,95€-ko kostua dakarkigu urtero.
- ESKU TRESNAK: Makinak erosiko ditugun arren, eskuz lan asko egin behar izango dugu. Beraz, hainbat tresna behar izango ditugu hala nola jostorratzak, pintzak...) Inbertsioa: 15€ kutxa bakoitza x 10 produktu = 150€ ko inbertsioa (segida batean ordaintzekoak)
- SOLDATAK: Badakigu hasiera batean ez dugula langilerik izango, Peio eta biok egongo garelako lanean. Hala ere, badakigu kostu bat izango dela garatzen garen heinean. Soldata bakoitzak 1200€ hilabetero kostatuko zaigu.

Kostua	Hilabetero	Urtero	Segida batean
Domeinua	14,95€	179,40€	-
Soldatak	1200€	14400€	-
Esku tresnak	-	-	150€
Makinak	-	-	750€
Totala:	1214,95€ hilero	14579,40€ urtero	900€ segida batean

Jarraitzeko, kostu aldakorrak: Kostu hauek gure ekoizpenaren bai hornitzaileen ekoizpenaren arabera da. Guk ekoitzi nahi dugunaren arabera "x" kantitate eros dezakegulako, baina haiek ekoizten dutenaren arabera "y" preziora sal dezaketelako.

- **EKOIZPENERAKO MATERIALAK:** Kostu hau ekoizten dugunaren arabera igo edo jaitsiko da. Ondorioz, ez da posible jakitea zenbat ordaindu behar izango dugun. Hala ere, badakigu zeintzu material erosiko ditugun. (Kotoia, poliesterra, elastanoa, pana, nahasketa...) Bestalde, mota guztietako hariak izango ditugu. 70€ hilabetero inguru ordaintzea pentsatuta dugu, batez ere poliesterrean
- **KOLORANTEA edo KOLOREAK:** Hau ekoizpenerako materialetan sar dezakegun arren, aparte bereiziko dugu posible delako kolorerik gabeko arropa ekoiztea. Hala ere, aurrekoaren moduan gertatzen zaigu, erabileraren ondorioz erosten dugulako. Tinte hau oso merkea da, beraz kopuru dezente bat erosiko dugu hilabetero. Ondorioz, 25-30€ ordainduko ditugula estimatzen dugu.

- PISTATXO POLTSAK: Gure salmenten arabera, hornitzaileei “x” pistatxo kantitate eskatuko dizkiegu gure bezeroei bidaltzeko. Beste puntuetan aipatu dugun moduan, hau hautazkoa izango da, beraz ezin ditugu pistatxoak bururik gabe erosi. Hala ere, 20€/hilabete ordainduko ditugula uste dugu.
- Elektrizitatea, gasa... (FAKTURAK): Lokalaren mantenimendurako eta makinak funtzionatzeko, energia behar izango dugu. Begibistakoa da gure kontsumoaren arabera kostu desberdina izango dugula hilabetero. Guztira, 150€ hilabetero ordainduko ditugula uste dugu.

Kostua	Hilabetero	Urtero
Materialak	70€	840€
Tintea	25€	300€
Pistatxoak	20€	240€
Fakturak	150€	1800€
Totala:	265€	3180€

